



MINISTERIO  
DEL INTERIOR



## GIDABAIMENAREN ORDEZKATZEA

A) EUOPAR BATASUNAREN HERRIALDEEN, ISLANDIA, LIECHTENSTEIN ETA NORVEGIAREN GIDABAIMENAK: **HONDATZEA, GALTZEA EDO LAPURRETA EGOTEKOTAN.**

B) ANDORRA, SUITZA ETA JAPONIAKO INDARREAN DAUDEN GIDABAIMENAK, ESPAINIAN EGOILIARRA IZAN BITARTEAN LORTU IZAN EZ DIRENAK: **GALTZEA EDO LAPURRETA EGOTEKOTAN.**

### AGIRIAK

1º. **ESKABIDEA:** Trafikoko Buruzagitzetan edo DGT-ren web orrian ([www.dgt.es](http://www.dgt.es)) dagoen gai askotariko inprimaki ofizialean, eta **ARGAZKI-TALOIA** behar den beteta.

2º. **TASA:**

- Inskribatutako baimenak eta Andorra, Suitza eta Japoniako baimenak lapurreta edo galtzea egotekotan, IV.3 tasa ordaintzen da: **24,10 €.**
- Inskribatuta ez dauden baimenak, IV.1 tasa (8,50 €) ordaintzan da izena emateagatik bai eta IV.3 tasa (24,10 €) ere ordezkatzegatik.

Hiru era tasak ordaintzeko: internetez [www.dgt.es](http://www.dgt.es) helbidean, banku-txartelaz Trafikoko Buruzagietan eta kontu-korronteaz edo eskudirutan finantza-erakundeetan (791 inprimakia eskuragarri dago Buruzagietan eta hemen: [www.dgt.es](http://www.dgt.es))

3º. **NORTASUN ETA BIZILEKUAREN ZIURTAPENA:**

- **NAN edo PASAPORTEA:** Indarrean dagoen jatorrizkoa.
- **BIZILEKU-BAIMENA edo zure herrialdeko NORTASUN AGIRIA edo PASAPORTEA bai eta ATZERRITARREN ERREGISTRO ZENTRALEAN IZENA EMATEKO ZIURTAGIRIA** ere erkidegoko atzerritarrentzat: indarrean dagoen jatorrizkoa.
- **BIZILEKU-BAIMENA** erkidegokoak ez diren atzerritarrentzat: indarrean dagoen jatorrizkoa.

4º. **GIDABAIMENA:** jatorrizkoa hondatze kasuetan.

5º. **ARGAZKIA:** Atzealde lisoko kolorezko 32 x 26 mm.eko jatorrizkoa, aurretik hartuta, buru estalgabetuaz eta kristal iluneko betaurrekorik gabe edo pertsonaren identifikazioa eragotzi edo oztopa dezakeen bestelako arroparik gabe.

Erljioa dela-eta ilea estalita daramaten eskatzaileak badaude, beloaz eginiko argazkiak jasoko daitezke baina, onartuak izateko, derrigorrezko baldintza hau bete behar da: aurpegiaren obaloa ilearen sortzetik kokotsera arte guztiz estalgabetuta egon behar da, pertsona identifikatzea galarazi edo oztopa ez dezaten.

6º. **AITORPENA** idatzita ebazpen judizial batek ibilgailu motordunak eta ziklomotoiak gidatzeko eskubidea kendu ez dizula adieraziz.

### EGOERA BEREZIAK

**GAITASUN PSIKOFISIKOKO TXOSTEN TELEMATIKOA** Gidarien Erregistroan **ANDORRA, SUITZA ETA JAPONIAKO BAIMENETARAKO GIDARIEI ARAKETAK EGITEKO ZENTRO** batek jasota.

**ORDEZKARIAK:** Agiriak baimenaren titularrak aurkeztu ezean, ordezkariak joko duen pertsonak bere identifikazio-agiri ofiziala zein interesdunak emateko ahalmena aurkeztu behar izango ditu izapidea egiteko, non doakotasuna agertzen den.

*Erroldatze-helbide eta EJGZko frogagirien aurkeztu orde, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak informazio hori telematikoki ziurtatzeko berariazko baimena eman daiteke. Horretarako, izapide-eskabideko formularioan dagokion laukitxoak markatu, edo egoitza elektronikoan edo Trafikoko Buruzagitzetan eskuragarri dagoen berariazko baimen-*



MINISTERIO  
DEL INTERIOR



*formularioa bete behar duzu. Informazio onargarria jasotzen ez bada,egin daitekeen konponketak agiriak aurkeztea behar izango du.*

(Eguneratua: 22/06/2018)

NOTA INFORMATIVA

www.dgt.es